

## UDALBATZA ERATZEKO BILKURAREN AKTA

### BERTARATU DIREN ZINEGOTZI HAUTATUAK:

- Arespalditzan, bi mila eta hamabosteko ekainaren hamahiruko hamabiak direnean, bilera-aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotzi hautatuak, lehenengo deialdian, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikulua ezarritakoari jarraikiz, Udalbatza eratzeko bilkura egiteko. Horretarako, zinegotziek ziurtagiriak aurkeztu dituzte alde aurretik.
- Gentza Alamillo Udaeta
  - Iñigo Pinedo Vadillo
  - José Antonio Bartolomé Pesquera
  - Montserrat Angulo Solloa
  - Susana Martín Benavides
  - Josu Artetxe Arana
  - Lauren Uría Peña
  - Nerea Goti Valle
  - Esteban Hernando Landa
  - Iraida Saénz de Lafuente Blanco
  - Xabier Artiñano Montalbán

### IDAZKARIA:

Naiara Lazpita Marcos

### **UDALBATZA ERATZEA ETA ALKATEA IZENDATZEA.-**

Josu Artetxe jaunak ongietorria egin die guztiei, eta honako hau esan du (euskaraz):

*“Egun on guztioi:*

*Gaur Udalbatzaren osaera aldatuko da, lau urtean behin gertatzen den bezala, eta hasteko, Udaleko gobernu-taldea garen partetik, eskerrak eman behar ditugu:*

*- Lehenik eta behin, herritarrei, lau urte hauetan eman diguten konfiantzagarritik: ohorea da guretzat. Gogor lan egin dugu, etenik gabe, ohore horri behar bezala erantzuteko eta emaitza garbiak emateko, hala kritikak nola laudorioak onartuz.*

*- Hori dela eta, gure eskerrik beroena eman nahi diegu ondoan izan ditugun langile guztiei, jarrera bikaina erakutsi dutelako eta tentsio handiko egoeretan ere borondate irmoz aritu direlako.*

*- Halaber, eskerrak eman nahi dizkiegu alderdi politikoei, egindako lanagarritik eta ekarpen onengagarritik eta herritarrekin izan duten konpromisoagarritik.*

*Bestalde, azpimarratu nahi dugu datorkigun aldaketa honekin ere jarrera berari eutsiko diogula eta gogo berarekin jardungo dugula lanean. Ildo horretatik, gobernu-talde berriari erakutsi nahi diegu prest gaudela elkarlanean aritzeko aldaketaren izenean, guk ezarri genuen lan-ildoari jarraitzeko.*

*EH Bilduk argi utzi nahi du lan egingo dugula gure herrian ireki den aldi politiko berriari bukaera emateko, hala udalerrian nola estatuan.*

*Ahalik eta hitzarmen zabalena lortzen saiatuko gara erabakitzeke eskubidearen alde, erakundeetan zein kaleko eragileekin.*

*Udala herriarena izan dadin nahi dugu. Lanean jarraituko dugu krisiaren ondorioak gainditzeko, eta eskubide guztiak defendatuko ditugu.*

*Era berean, ordea, salatu nahi dugu, gaur eta hemen, EAJ salerosian aritu dela ez dagozkion alkatetzak lortzeko, boto gehien jaso duten zerrenden gainera. Horretarako, herri honen oinarri-oinarritzko eskubideak aitortzeari uko egiten dioten horien babesa eduki dute.*

*Zoritxarrez, gaur frogatu dugu, beste behin ere, soldatak eta besaulkiak gutxieneko zintzotasun politikoaren gainera daudela. Alkate berriak izango dira, bai, baina ez dira inoren ordezkari; ezta botoa eman dieten jende prestu horrena ere”.*

Kargua utziko duen alkateak irekitzat eman du bilera, eta idazkariak Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 195. artikulua irakurri du.

Adineko Mahaia eratu da: bertan dauden hautetsi zaharrenak eta gazteenak osatuko dute, eta Korporazioko idazkaria izango da idazkari, ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoaren 195.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Horrenbestez, hauek osatuko dute Adineko Mahaia: ESTEBAN HERNANDO LANDA jaunak (bertan dagoen zinegotzi zaharrena), mahaiburu gisa; GENTZA ALAMILLO UDAETA jaunak (zinegotzi gazteena); eta NAIARA LAZPITA MARCOS andreak, Korporazioko idazkari gisa.

Adineko Mahaia osatzen duten kideek aurkezturiko ziurtagiriak egiaztatu dituzte.

Ziurtagiriak ondo daudela egiaztatu ondoren, Adineko Mahaiak ERATUTZAT JO DU UDALBATZA. Honako kide hauek izango ditu:

IZEN-ABIZENAK

ALDERDI POLITIKOA

GENTZA ALAMILLO UDAETA	EAJ-PNV
IÑIGO PINEDO VADILLO	EAJ-PNV
JOSE ANTONIO BARTOLOMÉ PESQUERA	EAJ-PNV
MONTSERRAT ANGULO SOLLOA	EAJ-PNV
SUSANA MARTIN BENAVIDES	EAJ-PNV
JOSU ARTETXE ARANA	BILDU
LAUREN URIA PEÑA	BILDU
NEREA GOTI VALLE	BILDU
ESTEBAN HERNANDO LANDA	BILDU
IRAIDA SAENZ DE LAFUENTE BLANCO	AIARA BATUZ
XABIER ARTIÑANO MONTALBAN	AIARA BATUZ

Udalbatza eratu ondoren, Udalbatzako kideak euren karguez jabetu daitezten, eta apirilaren 5eko 707/79 Errege Dekretua betetzeko (HEOLren 108.8 artikuluekin bat etorritz), mahaiburuak galdera hau egin dio hautagai bakoitzari: “Zin dagizu edo agintzen duzu, zure kontzientziaren eta ohorearen izenean, zintzo beteko dituzula zinegotzi-karguaren betebeharrak, konstituzioa funtsezko arau gisa zainduz eta zainaraziz?”. Zinegotziek honako hau erantzun diote galderari:

- GENTZA ALAMILLO UDAETA jauna: sí prometo por imperativo legal
- IÑIGO PINEDO BADILLO jauna: sí prometo por imperativo legal
- JOSÉ ANTONIO BARTOLOMÉ PESQUERA jauna: sí prometo por imperativo legal

- MONTSERRAT ANGULO SOLLOA andrea: sí prometo por imperativo legal
- SUSANA MARTIN BENAVIDES andrea: sí prometo por imperativo legal
- JOSU ARTETXE ARANA jauna: Legeak hala behartuta hitzematzen dut
- LAUREN URIA PEÑA jauna: Legeak hala behartuta hitzematzen dut
- NEREA GOTI VALLE andrea: Legeak hala behartuta hitzematzen dut
- ESTEBAN HERNANDO LANDA jauna: sí acato por imperativo legal
- IRAIDA SAENZ DE LAFUENTE BLANCO andrea: sí prometo por imperativo legal
- XABIER ARTIÑANO MONTALBAN jauna: sí prometo por imperativo legal

Ondoren, Alkatea hautatzeko modua zehazten duen ekainaren 19ko 5/55 Lege Organikoaren 196. artikuluan jasotako arauak irakurtzeari ekin dio Adineko Mahaiko idazkari andreak.

Hona hemen talde bakoitzaren zerrendetan lehenengo postuetan dauden zinegotziak eta alkate hautagaiak:

#### **HAUTAGAIAREN IZENA**

#### **TALDE POLITIKOA**

GENTZA ALAMILLO UDAETA jauna	(EAJ-PNV)
JOSU ARTETXE ARANA jauna	(BILDU).
IRIDA SAENZ DE LA FUENTE BLANCO andrea	(AIARA BATUZ)

GENTZA ALAMILLO UDAETA jaunak aldeko 5 boto jaso ditu; Josu ARTETXE ARANA jaunak, 4 boto; eta IRAIDA SAENZ DE LA FUENTE BLANCO andreak, 2 boto.

**Ondorioz, 11 zinegotzi daudenez eta legezko gehiengo osoa 6koa denez, hautagai batek ere ez du lortu behar den gehiengo osoa; horrenbestez, GENTZA ALAMILLO UDAETA jauna izendatu da alkate, boto gehien jaso duen zerrendaburua izan delako.**

**GENTZA ALAMILLO UDAETA jaunak kargua onartu du, eta hitzeman du LEGEAK HALA BEHARTUTA zintzo beteko dituela alkate-karguaren betebeharrak, konstituzioa funtsezko arau gisa zainduz eta zainaraziz.**

Toki Korporazioen Antolakuntzari eta Funtzionamenduari buruzko Araudiaren 36.2 eta 56.2 artikuluetan ezarritakoa betetze aldera, kargua uzten duen alkateak 2015-06-13an eginiko Ezohiko Kontaketaren Akta eta dagozkion ziurtagiriak (Korporazioa eratzeke saioko espedientean daude) eman dizkio izendatu berri den alkateari, egiazta ditzan.

Idazkariak esan du ezin dela Udalaren ondasunen inbentarioaren berri eman; izan ere, urteak daramatza eguneratu gabe; beraz, jasota dauden datuak ez dira inbentario horren isla.

Gentza Alamillo jaunak testu bat irakurri du, eta testua eranskin gisa gehitu zaio akta honi.

Alkate jaunak amaitutzat eman du bilera, gorago adierazitako eguneko hamabiak eta hogeitu minutu direnean. Hori guztia jasota gera dadin, akta hau egin da, eta bertaratutako guztiek eta nik sinatu dugu. Nik, idazkariak, hori guztia ziurtatzen dut.

OE  
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,